

## BI AURRAK.

(On Manuel Antonio Antía, Urnietako Erretore jaunari.)

Alargun pobre baten  
 Besoetan,  
 Churi ta flakua,  
 Ikusi nuen atzo  
 Aur chiki bat  
 Umezurtz gañua!  
 ¡O!... eramaten zion  
 Maiz kolkora  
 Bere eskuchua,  
 Bildoch batek bezela  
 Billaturik  
 Amaren berua;  
 T' amak ematen zion,  
 Beiñ ta berriz,  
 Musu chit estua!  
 ¡Zenbat ta zenbat pena  
 Musuetan  
 Zijoan bildua!  
 . . . . .  
 Beste aur bat, kontentu,  
 Inguruan,

Zebillen jostatzen;  
 Bere begi edérrak  
 Aur tristetan  
 Asi ziran jartzen,  
 Gero, ondora joanik,  
 Jostalluak  
 Zizkan erakusten,  
 Eta abiatu zan,  
 Andik laster,  
 Goñuak ematen.  
 Orduan far-irri bat  
 Umezurtzak  
 Zuen ¡ai! isurtzen,  
 Ta aur pozgarri ura  
 Alargunak  
 Malkoz bedeinkatzen!  
 . . . . .  
 ¡O aberatsen áurrak:  
 Azi beti  
 Pobréak maitatzen!

ANTONIO ARZÁC.